# Fresatze-lanek afekzioak sortuko dituzte asteburuan AP-8an Deban Behobiako norabidean

***Urriaren 24tik 25erako gauan, larunbatetik igandera, 23:00etatik 10:00etara, Itziarreko lotunea eta zerbitzugunera sarrera-irteerak guztiz itxiko dira***

AP-8, AP-1, GI-20 eta AP-636 errepideetako hainbat zatitako zoladura berritzeko kanpainaren zortzigarren jarduketari hasiera emango dio Bidegik asteburu honetan. Zehatzago, AP-8an, Behobiako norabidean, Deban fresatze-lanak egingo ditu, hain zuzen ere, 56,000 eta 53,100 pk artean.

Lanak urriaren 23an, ostiralean, 21:00etan hasiko dira eta igandetik astelehenerako gaua arte, 01:00ak arte, luzatuko dira. Lehenik, ezkerreko erreiaren fresatze-lanak egingo dira. Horiek horrela, ostiraletik 21:00etatik, larunbatera 23:00etara, ezkerreko erreia itxita egongo da.

**Itziarreko lotunea eta zerbitzugunerako sarrera-irteerak itxita igandean**

Afekzio nagusiena larunbatetik iganderako gauan eta igande goizaldean gertatuko da. Urriaren 24tik 25erako gauan, larunbatetik igandera, 23:00etatik aurrera fresatze-lanak eskuineko erreira pasako dira, eta ondorioz, Itziarreko lotunea eta zerbitzugunerako sarrera zein irteera itxi beharko dira. Itxiera honek igandea 10:00ak arte iraungo du. Hala ere, eskuineko erreiaren frestatze-lanek igande osoan mantenduko dute erreia itxita. Aurreikusita dago lanak urriaren 25etik 26rako gauan, igandetik astelehenera, 01:00etan amaitzea.

Larunbatetik iganderako gauan, eta igande goizean, Behobiako norabidean Itziarreko lotunea erabiltzea aurreikusita zuten erabiltzaileek honako alternatiba izango dute: N-634 errepidetik jarraitu Zestoa-Zumaiako lotuneraino, handik AP-8an Behobiako norabidean hartzeko.

**Zoladura berritzeko 2026-2027 kanpaina**

Bidegik 14,9 milioi euroko inbertsioa egiten ari da AP-8, AP-1, GI-20 eta AP-636 errepideetako 46 kilometrotan zorua berritzeko. Helburua da zoladuraren baldintza estrukturalak eta funtzionamendua mantentzea, bide-segurtasuna bermatuz eta ematen den zerbitzu mailari eutsiz.

Bidegik jakinarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla, izan ere, eguraldia bezalako faktoreek aldaketak eragin ditzakete. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarautz, 2026-10-22

# Trabajos de fresado provocarán afecciones el fin de semana en la AP-8 en Deba sentido Behobia

***La noche del sábado 24 al domingo 25 de octubre, entre las 23:00 y las 10:00 horas, se cerrará el enlace de Itziar, así como la entrada y salida al área de servicio***

Bidegi va a iniciar los trabajos para renovar el octavo tramo de firme dentro de la campaña para remodelar el asfalto en diferentes lugares de la AP-8, AP-1, GI-20 y AP-636. En concreto, se van a realizar las labores de fresado en la AP-8 en Deba sentido Behobia, entre los pk 56,000 y 53,100.

Los trabajos comenzarán el viernes 23 de octubre a las 21:00 horas y se prolongarán hasta la madrugada del domingo al lunes a las 01:00 horas. Primero se acometerá el fresado del carril izquierdo. Así, desde el viernes a las 21:00 horas al sábado a las 23:00 horas se cerrará el carril izquierdo.

**Cierre del enlace de Itziar de la entrada y salida al área de servicio el domingo**

La afección principal se producirá la noche del sábado 24 al domingo 25 de octubre. A partir de las 23:00 horas los trabajos de fresado pasarán al carril derecho, lo que provocará el cierre del enlace de Itziar, así como de la entrada y la salida del área de servicio. Este cierre se mantendrá hasta las 10:00 horas del domingo. Después los trabajos de fresado continuarán durante toda la jornada, por lo que el carril derecho continuará cerrado. Está previsto que los trabajos finalicen la madrugada del domingo 25 al lunes 26 de octubre a las 01:00 horas.

Las personas usuarias que tuvieran previsto utilizar el enlace de Itziar sentido Behobia la noche del sábado al domingo, así como durante la mañana del domingo, tendrán la siguiente alternativa: continuar por la N-634 hasta el enlace de Zestoa-Zumaia, desde donde se podrán incorporar a la AP-8 en dirección a Behobia.

**Campaña renovación de firmes 2026-2027**

Bidegi está realizando una inversión de 14,9 millones de euros en la renovación de 46 kilómetros de firmes de la AP-8, AP-1, GI-20 y AP-636. El objetivo de la campaña es mantener las estructuras funcionales del pavimento, preservando la seguridad vial y el nivel del servicio.

Bidegi informa que los horarios establecidos para realizar estos trabajos son aproximados, ya que pueden variar dependiendo de factores como la meteorología. En este sentido, aconseja circular con precaución y seguir las indicaciones establecidas tanto por las señales como por el personal de obra que se encontrará en el lugar.

Zarautz, 2026-10-22